Borroka galduetatik gatoz

Urtzi Urrutikoetxea

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1997 Urtzi Urrutikoetxea
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1997ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Santutxuko Sei Izarren omenez
Arrizen
Asier
Ibai
Mikel
Ezker
Ikerne
barrikada honetako ametsen
hutsunean zaudete beti

Liburu hau gustuko dukezu
baldin inoiz ene logela bisitatzen baduzu

kontatzen du gartzeletako trajedia
konta dezakeen legez herriaren oinazea
edo ezein paperetan bildu bako amodio galduak

bizikleta egongelan aparkatuta daukat
bila datozkidanean bizkor errefuxiatu ahal izateko
kresalak gogorturiko gizakiñoen moilan
eremua mugatzen den bihurgune estuan

SEI BOTILA HUTS

estimatzen genuenaren alde burrukatzeko presa genuen
lurrak, berekoi, gure laguna estimatzen zuela
eta lurrak ere presa zuela igarri gabe
Joseba Sarrionandia

Orduantxe ulertu nuen hiltzea
lagunekin inoiz gehiago ez egotea dela
Gabriel García Márquez

LAU KONTU EZKERREKIN

Bide arantzatsuak egokitu zitzaizkigun eta
bestela uste bagenuen ere
ez geunden jipoietara ohiturik.

Tentsioari eta lepo makilakatuei aurre egitea
egunsentiko opari genuenean,
gutariko banakoen multzoa
batasun hausnargea zenean
aldegin zenuen,
urrunetik zetozen albiste nahasiekin batera
oroitzapen bihurtu zen egunerokotasuna,
haragitan markaturiko oroitzapen egin zen bizitza,
zalantzak eta gaztetasuneko presak
eta ihauteriak eta turnoak eta doako katxiak
enrike eta marisarekin
berbetan hastea edo antolamendua eztabaidatzea,
ohartu ginen hura gidoian ez zegoen pasartea zela.

Saiatu gara

inprobisazioaren funtzioa ahalik eta ondoen betetzen,
amildu zaigu guk ere igartzen ez genuen tinkotasun hura.Oraindik orain
kale artean gorputz segailak gurutzatzen ditugunean
mekaguendios batek egiten digu ihes
bihotzean ereindako omenaldia dela adieraztearren-edo.
Ezker, guk daukaguna eta iraganaren flashak dauzkagu
izan beharrekoa horretan mugatzen delakoan.

Non gaude zure ausentziaren zubian?
Zein solairutan ezkutatu dugu gure izate maingua?
Nortzuk ditugu adiskideak?
Ezer ez esatea merezi duten galderak doaz auzoan zehar
izkinaren batean topo egingo duzuelakoan.

KANTA BAKARRA IKERNERENTZAT

Badakixu? beeeti dxatordas kantziño bardiñegas baie
mutu dauket estarridxe asken urte bidxotan-a
ai sorgiñe,
pipermiñegas yaidxo sintzen da gero gu txarto akostunbrau
aman altzoa itxi barri
deskantzue da esetza esetuten es ausen barrie topa gaindun de-e,
selan asarratu ba sulangoagas?

oin pankarta geidxau de arri geidxau daus-u
geidxau goas karraka, kantziño proibidu geidxau daus
siketu dxakus malko geidxenak
lantzien beiñ sulango anpullu rebelde batek
iges iten badausku be

esetu doas terceron amestu gaindusen leku asko

kantziño barridxek da burruka sarra’taus
nik,
no time for love kantetan lagunduko’stenik
espadauke’pe

akorduen dauket geldiri lotu esin san a,
forro morau bet da marruekoseti
sekule ekarri es saunsten karterie

geidxenien ondo-edo goas
baie suk rekomendauteko aik kickersak
apurtuten daukedas
estauket lagunik klasien amesak konpartiduteko
no time for love kantetan

BOTILEN ETIKETAK

Orain ez dut maite, egia da, baina beharbada maite dut
Hain da laburra maitasuna, eta hain da luzea ahanztura
Pablo Neruda

Utz iezadazu bederenik
nire azken mattetasuna oinpeko zabal diezaiodan
badoan zure urratsari
Vladimir Maiakovski

Iluntzeko albistegietan iragarri dizute laztana:
saguxar xuxurlariek inarrosi dute
fotografietako hautsa,
pailazo akituen zirkuak ateak edegi ditu
eta badirudi ipar-haizea bederatzi milimetrotan
hurreratzen zaigula
— teletipo anonimoa —,
kaleetan diesel militarra hedatu dute atzera CS ke
poteetan.
Atzamar urduriek
zure kamiseta zuriaren gerrialdea bailitzan
ferekatzen dute gatiloa,
figura emearen intsinuazio berba kiskalgarrietan
ezin eta
zurruntasun hilkor baten erreka jelatuan nabigatuz.
Inperioaren bala asasinoak aspaldi makurtu ziren
begi errebeldeen pertsuasiora;
itzuli dira bertsoak eta omenaldiak,
maitaleak, ametsak eta beldurra
kaxoi zaharrenetatik gu bion bandera
josten ari zaizkigu
berezkotasunez izekitzen den borrokaren seinale.

Telegrama berriak iritsi zaizkigu kartazal usaintsuetan:
antigoaleko ohar sinplifikatuak heriotzara bidean
eta zure malko batek korritu duen beltzune lohi bat, ttiki.

Nahiz eta ibar urrinetan amiltzen diren cadillacak
nola winston bat edo james dean jeans karreterako seinaleak
laugarren zaldiak irabaziko du etorkizunera galopan.

Paradisutik borreroak emazte aspertua zelatatzen du
karta jokoetan begi iheslariek speedetan zintz
irensten dute ziutatea,
irudi zirimola batean igaro dira fotogramak garunetik.

Zelan deskribatuko dizut, ttiki,
odolaren borborrean zure gaindosiaren atauteak baino
ez dagozela?

Zuk aldiz mezu berezia hedatzen duzu on line.

Hariaz bestaldean mustupil zurbilak
hurbiltzen dizkidazu.
Xirula bat eta gitarra desafinatu baten opari
paperean
bildurik iristen zaizu ahotsa.
Itsasoaren gogoak zakartza.
Sakoneko trenak asagotzen,
galopan, kableetatik datozen
jipoi uniformatuak bailiran.
Galarazitako pikardiaz janzten dituzu eleak.
Gaur praka koadro ilunak gurutzatuz atzeman zaitu
telefonoaren zerbitzu sekretuak.
Niri udagoieneko maitasun honen arbolaren antzera
ihartzen zaizkit deklarazioak
eta urruntzen ikusten ditut noraezean
zure hondoko ahotsean doan trenaren bidetik.

Tentsioa azaldu nahian zure erretratua irten zait:
ez dute emititu zure etorreraren iragarpena
mutu dabiltza kalatxori hegalariak pasean,
beren begietan
gosea baino ez da irakurtzen ahal
laguntza eskatu nahi luketen
letrakera sentsazionalistaz
pankarta debekatuaren garabitik zintzilikatu dira
baina ez diote arean.
Ibaiak ere zalu betetzen ditu azken urratsak
zubian behera amildu ziren poemetan erreparatu
barik
beharbada mezu ttikiak ekoiztuko ditugu labe
garaietan
azkeneko aldian ezer gutxi arrantzatu genuen
botila anonimoen gutunetan badakizu
oso lanpetuta zabiltzala eta kafean
esne gutxiago botatzen duzula orain
kaleak erdi hutsik dagoz laztana
isiltasunaren artistek
furgonetetatik garbitu dizkigute paretak

gaurkoan inork bazatozela asmatu orduko
nik leihoak itxita itxaroten dut egunsentia
eta terrorearen helikopteroak
bere biblia opari eman dit
erresuma ikusezineko psikiatren bezero

Berri onak ote dakartzazu ahaztu zaitugunontzat?

Zulakoen esterminio zelaietatik ihesean
itxi nuen estreinako atea. Achtung.
Baina baziren ate gehiago, zelai gehiago bazirenez.
Eta iheslarien ateak oro ixtean,
betiko gatibatu naiz horma zuridun ziega huts
honetan,
dekretuzko gose grebaren palazioan.

Jantz ezazu indiferentziazko soineko luze hori
eta zapata gorriek ekarriko dizute hiria.
Gaur gauez ilunaren legeek oinperatu gaituzte,
etxeratze deia daukagu eta
termometroek zeroan eraiki dute Bake Lerroa.
Zure ahanztura aginduta
albistegietako propagandaren izar bihurtu zaituzte.

Brisara jelatu honek gutun bi ekarri dizkigu.
Lehenean, maite behar nauzula
deliberatu dute zentsuratzaileek
artilezko galtzerdien antzeko
bihotz gorri baten irudia eginez
euren zerrendetako zenbaki hutsetara
sinplifikatu gaituzte.

Hurrengo kartazalak ez daroa kontrol agiririk,
nik, galarazia egon arren,
kamera loakartu arte itxaron eta ireki,
irakurri eta atzera bere lekuan utzi dut
hatz-markak garbituta.

Komunean kaligrafia klandestinoaren
txokoak oro miaturik
berbaz berba irentsi zaitut paperezko zapiekin
baina letra hizkuntza hau arrotzegia zaigu jadanik
esanahi bakar eta lelo xingleetan uztartu gara
zure dantzaren ahanztura
gure diskotekako argietan agertu arte.

Eta noizbait honelako gutunen usainek
iraultza egingo duten gezurrean ametsetan
eskumako atzamarreko gasolina zauriak garbitu
ditut.

Banekien aspaldi okerturiko bidegurutze hartatik
bizitza kamuflatuak baino ez zeudela
kalean eta herriko tabernetan sortutako seinak,
atzerapausorik ez dagoela
lautada asagoetan aurkitu genituen
iraultzarako dekoratuak,
non eta gizakia infinituaren bertigoan galtzen baita.
Eta armaturik bailara intsumituren bat
gure mapetan gatibatuko zutelakoan,
aurrera bidean ibar ilehori hura
agertu zitzaidan ipar-orratza biluziz
imitaziozko artizarrak jarraitu nituen
uztaileko egun euritsuetan.

Beharbada jakin behar nukeen
Artxanda ez dela Hollywood Hills
eta Bilbok Los Angelesen mozorroa baleuka
Kafe Antzokian klub kirastuetako pertsonaiez
eta malenkonia hezez makilatu gintezkeela.

Hortaz, zelan ez dut oroitzen
zein praka zeramatzan eta ondo lotzen ote zitzaion
kamiseta estu hura?

Aspaldi jagi da egun berria: ez zakartza berarekin.
Joan da ihesi iretargi betedun gau hau eta
alkoholetan
urtu da maitetasuna.
Zu ez zaude eta beldur naiz.
Eta hor zoaz eta mezu sekretuak xingletzen dituzu.
Ez, gaur ez zaude inon.
Autobus geltokiko kafetegia hondamendiak
laztanduriko desamodioaren tenplua da.
Kolore definigaitzeko begiradak eta gosari egin
berriak
gurutzatzen dira «nora» eta «nondik»
ezezagunetako ibilgailuen moduan.
Zazpiehun itaunetako
xerloen sekretuen moduan gurutzatzen dira.

Zeintzuk dira zure kutxa ezkutuetako giltzak?
Non gorde dituzu iluntzeetako
konplizidadea eta kamiseta estuak?
Zein egunsentitan zerbitzatuko didazu
desesperaziozko pattar berri bat?Nor zara?

Zein bidek gatibatu nau?
Eta zergatik estutzen dituzu asmatu ezin ditudan
kateak?

Zuk isiotutako ilusioekin daramatza galderak
haizeak,
izan litezke adibidez highlandseko gaita baten
notak,
hau guztia hain hitsa ez balitz.
Eremu finitu hauetaraino ekarri ninduten atzoko
seinaleek;
ziega honen hormak ixten dituzu eta ez zaude
hemen.
Ez zaude agur monamour batez agurtzeko,
irribarre arriskutsuegia daukazu
maitasun dekadente hauetarako;
ez zaude eta segi hor,
egunek argitzen dituzten haitzulo pesimistak
altxatzen.

Zein da gau honen esangura
como gasto papel en recordarte
zure presentziaren zantzu ttikiena
sumatzen ez dizudanean?
non ostentzen da gero arteen konplizitatea
ipurmasail levisak eskaileretan beltz
urruntzen direnean?
eta zein da hiriaren memoria?
nora joanen gara plebeioak
gure babeslekuak bonbardatu ondoren?

Mila galderatako maitasun gorpuzgearen
entziklopediak bakarrik daude nire apalean,
zure argazkiari erreserbatu nion txokoan.

Zergatik daude zuenak ez beste puntuak oro
itsutzen dituzten argi kanoiak?
Zein ziegatan gatibatu dituzue gure azoketako
fruituak?
Nortzuk zarete zuek?
Nondik jaso dituzue gure bizitzetako liburuak?
Zein tintontzi darabilzue zuen dekretuetan
ametsak fusilatzen dizkiguzuenean?

Goizalde heze batez zabaldu zenuten nire gelako
atea,
sarraila miopeen giltza astunez.
Biharamunak
estrategia suizidek sortutako
maparen abiapuntuak dira,
izurriaren kontrako txertatze masiboak;
sekula egongo ez diren arrosen arantzak
miratzen dituzte antiojo okerrekin.
Badirudi haize eta babazuza mehatxuak
egin dituela eguraldi kazetariak.

Non gordeko dituzue zuen
kontrabandoko guardasolak?
bisita ote ditzakegu gabardinak kendu barik?

Gutun ezkutuak kloroformoz busti dituzue,
zoriontasuna hedatzeko langabezia ilaran.

Farola bakoitzaren paisaia
terrorista bihurtu dira aurpegi bako begiak.
Gure auzuneetan merke kotizatzen da duintasuna
makilakadaka hautsitako lepoak,
izuaren langileak, aurpegi seriosak jantzirik,
egongelaraino sartu zaizkigu
orro garratzen bila zerbitzatzen digute gezurra
gerra ministerioko serbilletetan.
Hil dira
gure heroi partikularrak
etakideak ziren ikastolako urteak.
Gasolinatan itorik hil dira.
Heriotza ohorezko abentura inozenteak zireneko
sasoiak gure salaketen hautsezko
kaxoietan sartu dituzte.

Hau ez da antzutasunaren gorpuzte krudela baino,

psikiatriaren garapena ikertzen dute
etxera bidean bakardadea laguntzen duten
biolentziaren milaka begiek.

Baldin errepide honek helmugarik balu,
harrizko mapa honek esanahiren bat
agur eutsi ekin berandu da the end
baleuka bere biluztasun zaporgean,
beste zerbait izkiriatuko nizuke seguruenik.

Izkiriatuko nizuke seguruenik
hau zure antzekoa dela,
hotza gogorra eta intimitatearen soineko
ederra jantzirik beti
edo hemen egotea
zure ausentzia bezain hitsa izan daitekeela.
Seguruenik horrelako gauzak izkiriatuko nizkizuke
eremu infinitu honen erdian
itsasoa non marratzen den baneki,
ez banintz zuribeltzezko
argazki koxkor honetako protagonista;
Stand by me irrati bertsio miserableenak ere
ahaztu du lurralde hau,erlojuak eta brujula
sakrilegioak dira hemen
eta iparrerago joz haizearen

berba ttikiena xerkatzen dut
malenkonia eta irudi hautsiak soilik
garraiatzen dituela ohartzeke.
Desolamenduaren aberrian amorante apatridek
kontsolamendu berriak asmatzen ditugu
bihotz minberentzat, suizidiorako ere
koldarregiak diren hirugarren mailako poetentzat.

Milaka zubi zure eremuko muinoetaraino
arantzez, hilkutxez eta elektrodoz josiak
milaka, banderak eta himno inperialak
etengabe datozen suge gazte saldoak
aizkora bihurriekin borroka kamuflatu batera
ohorezko tiroak eta ohore gabeko tiroak
eta odolez gainezka zureganainoko ibaiak.

Garestia da bakea lur hauetan.

Isiotu dituzte gure abenidetako kandelak,
auzunea gerra garraisi azulez makilatzen digute
barikuetan,
asfaltoa erreka bihurria da eta
okupazioaren diesel motoreak aditzen ahal dira,
etc.

Gauari sirenen dekorazioa jantzi diote,
xirula keltiarren notek torturapean zizelaturiko
poemaren malkoak xukatu dituzte.
Zuzen ibiltzea ez dela haizu oroitarazten diguten
baletara ohituegi gaude beharbada
«Zalantza gabeko gogoeta duk, adiskidea», etc.

Kaligrafia ederrenarekin osatu dut zure izena
gerrillari itxkeriarrak zulatu zituzten balen
biribiltasunez, eta bonbardatu dituzte
azken txokoetako babeslekuak ere.
Zirujauak falta dira zaurituentzat,
ezin josi diren gorputz atalez bete digute ospitalea...

¿No lleva equipaje?
itaundu zion funtzionariak eta zain gelditu zen,
aduanan zebiltzan guardia zibilek noiz ezagutuko,
oharkabean pasatzeko arauak oro ahazturik.

Pasaporteen leihatilakoak ere
goitik behera eta berriro gorako
begirada lotsagabea bota zion.
Nini ikaztu haiek
bertan debekatuko zioketen
deserriko hegazkina hartzea
agiria faltsua zeneko zantzu ttikiena igarri izan
baliote.

Oratzera ohitzerik izan ez zuen pistola ere
atzean utzi zuen.
Dirurik eta giltzarik arean eroatea
derrotaren soinean girnaldak janztea litzateke.

Zerk bultzatu du orduan
metal detektoreko uniformedun gaztea

dena kontatzera ziega zuloan ametsa
ahalbait arinen amai dadin?

Desagertutzat jotzen dituzten indar paramilitarrak
hegalak ematen zizkiguten hankasartzeak bide
ziren,
hogei urte barru zuen gezur mediatikoetan
asasinatu dituzuenak izango diren antzekoak.

Enea okupatutako territorioa da.
Gauarekin bat heltzen da izua kale bazterretara
argi urdinez jantzirik.
Erresistentzia kateatu eta, oinazearen morroi,
sare lohiez gatibatzen gaituzte.

Ez ei da zilegi gure oletan ibiltzea,
zigarro piztuen eta erratz makilen zokoak
aski bide dira goizaldea urratzen,
maitasun debekatuak praktikatzeko.

Nahiko genuke azken zulotxoetatik
hitzak barreiatzea haizeak,
uniforme kamuflatuen eta auto blindatuen
harresiak oztopatu barik.

Maite dugu
torturapean irtendako azken izena,
eta hegal urratua
adarrik adar lege antiterroristarik
gabeko solasetan hegaldatzea.

Maite dugu mozkortzea eta euskaraz
larrua jotzea,
baina horretarako ere
lur honetan
berun asko behar da oraindik.

Antigoaleko hieroglifikoak deszifratzen ibili ginen
sekretu berriak eta galarazpen itsuak
harilkatzen genituela ohartzeke.
Zintzotasun konplizearen eta zentsura arrosen
labanaren ertzetik maitatu zaitut,
non eta hausnarketak
likore edabe pizgarrien eta arma ezkutuen
kontrabando untzietan bururatzen diren.

Iraultza konplizea xuxurlatzen zenidan
manu militari papiroz belarri ertzean,
mosu irristakorra eta hats epelenaren karriketatik
askatasunaren panfletoak itsasten zenituen.

Gero polizia iritsita iheslari arrunt bihurtu ginen
urrats galduen zelatari.

Eta bizitzaren koordenadak
disidentzien brujula batean izoztu zaizkigu.

Herria euri malkotan itotzen zaigu laztana
Meandroetako haitzetan kulunkatzen dira
belauntzi mengel haiek
nola gonapeko seinak ikara itsuz oherantza,
amaiera tristeko itsasoetan nabigatu ezinik.

Isiltzen ari zaizkigu estudioetan
musikatu zituzten poema biluziak,
bizitza ez ei da arku ojibaldun zubi baten
prismatik kateaturiko ibaia;
ez ei da zilegi ur ertzean etzanik
pasean datozen neumatiko kutsatuak begiratzea.

Hemen legeak hiztegietara botatako
marra zuzenen bonbardaketak baino ez dira,
«maite zaitut» eta «oker dabiltza» bezalako
esaldiek ez dezaten lur emankor hau pozoindu.
Eta zein hormatan fusilatuko dituzte
poetak ez baina benetako gaizkileak?

—1—

Nolabait funtzioak beti aurrera jo behar duelako
bakarrizketa hau osatu dizut gaur goizean,
esnea berotu eta leihotik euria
margotu dut eta termalgin kaxa zabaldu.

Maitemindu hordien egunkariak
sano pieza bereziak dira,
eskribitzaileak ere ez du eskribitutakorik ulertzen
ahal,
lerro deszifragaitzetan
sentimenduen biluztasuna transkribatzen da,
noizean behin zure izena dirudien
zirriborroa antzeman eta
«hau bai, baliteke» mintzo da ajea.

Telefilme kaskar bat zegoen,
pailazo herabeen malkoen gisan oroitu zaitut,
pubaren erdialdetik abesten zizun
musugitarra country horrekin.

Sonbreru bat eta zeru estalia,
hitz joko kateatuetan
behin eta berriz ekartzen zintuen.

Zerbaiterako balioko balu
esanen nizuke hamalaugarren godaleteko
zina betetzen saiatu, saiatu naizela
eta telefonoraino parajetu ere egin naizela.

Zeresanak tabako paperetan erre dira ordea,
ez daukagu biharamun euritsuetako kafeetan
errudunarena antzeztea baino.

Funtzioak beti aurrera jo behar duelako.

—2—

Musugitarra jostari batek zauzka gogoan
doinu countryetan,
pub ttiki honetako bikoteek
maitetasuna isiltasunaren adimenean isiotzen dute
patiladun gizon lodi horrek guri abesten digulako
nota sentituak eta hitz jokoen

zangalatraba ulertezinean,
«saiatu naun, bihotzak hakarrelako, baby».
Hogeita hamar txalo giro ezti baten
azken bateria kolpeekin
baina ez,
ez gizon patiladunik,
ez cowboy sonbrerurik ez budweiserrik,
nire bakardadearen hondarrak bakarrik daude
taberna zulo honetan.

Atzeko mahaitik so egiten dizut goizero
gaurkoan jertse grisa ekarri duzu
begiratua gozotzen dizun hura
eta bigarren, laugarren eta bosgarren orduetan
hartu dituzu apunteak
hirugarrenean kafetegian itxaron zaitut
liburutegitik noiz itzuliko zinen zain haxixa errez
eta maitasun poemetako liburuetan
zure silueta marraztuz

(milaka bidezidor desolamenduaren auzuneraino)

orrazkera berriak beste itxura bat eman dizu
nolabait, blonda arriskutsuagoa zara orain
eta jelosiak jota miratzen dut zure atzekoei
oparitzen diezun irribarre bakoitza
noizean behin adats solteetako kamuflajean
gure basamortura oasi azulak dakartzazula
imajinatu
eta atoan itzultzen zara
irudikeria baten moduan desagertuz

(milaka kontrol eta errepide bonbardatu gure herriskaraino)

Gaur arrastian zoriontsu egin nauzu

eman zidaten abisua izarrek, argi beilegizko
telareetan josi zituzten alfabeto xingle haietan:
«astelehen arrastian zoriontsu eginen hau»

nekez erratzen baitira izarrak,
mintzatu gara gauza ttikiez,
zure arnasa pausatuaren epela
aho ertzean desegiten zitzaidalarik
behar adina sekula hazten ez den tximinia
su horren pareko

baina nire izerdi leiak aizto zorrotzenez zauritu nau
eskua kamisetako hauts arrastoak inarrosiz
begiztatu dizut, algara xume bat,
eta sorbaldan indiskretoki agertzen den sujetadore
zinta

gero zoruan pausatu dituzu atzera kickersak
eta ohi bezala urrundu gara,

lantzean behin so iheskorra antzematen dizut
zure irletako itsasoan dzanga xabukatzeko,
orduan,
aurpegi serioz aurrera bueltatzen zara

baina ni zoriontsu egin nauzu

BOTILA BAT GASOLINA

Haizea libro dabilen lekuan
Marrarik eta mugarririk gabeko lurrean
Sortu ginen, libro mintzo ziren gauza guztiak
Eta hortxe hil nahi dugu, ez harresi artean
(“Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak”etik)

Son mish, ta fys ayd, ta scaan y chenn ghlare,
Ec cloan Vannin er my hregeil
Jakizue bada, ni hizkuntza zaharraren mamua naiz,
Maneko haurrek abandonatu egin naute
William Kennish
(1840an manx gaelikoaren heriotza iragarriz)

EZ GINEN HEROITARAKO JAIO

Gure eskuetako gasolina usainak
ez du inoren konprentsiorik erdietsiko,
labana puntaren zorrotza mila bider iltzatzen
bazaigu ere,
gure tribuaren psikologiak azalduko du dena
bertsio ofizial sentitu batean.

Zorioneko erresuma honetan ez dago
heroientzako lekurik
hemen zelofanezko paperean sinatu dute bakea
zelofan beltza bakarrik aurkitu badute ere.
Mila zokogunetako lur honetan
beste mila azpiko solairu eraiki dituzte
deklarazio ofizialen formulario fotokopiatuek
ziega zuloetan arrapaladan doaz ihes indarrak
ezdeusari ate joka.

Heroiak iparrean daude. Eta hegoan. Eta sarajevon.
Baina hemen heroiak aspaldi desagertu ziren
hodi katodikoen labirintoan galdurik.

Munduan zehar barreiaturik daude heroiak
eta ez hemen.
Hemen gu eta besteak bakarrik daude.
Gerizaren eta gasolinaren umeak bakarrik gaude.

Ikarak eta ezinegonaren gaitzek
borrokaren etxeak, borroka gabeko etxeak
gatibatzen dituzte ostiral gauetan bolanta sareetan.
Telefonoa heriotza zigorren legezko gauzatzea da,
torturaren eta inkonprentsioaren mezulari,
lorik hartuko ez dutela jakinik oheratzen dira,
zeren aiduru asmatu ezinean.
Ateko giltzarrapoa eta goizaldeko deiaren
harrabotsa,
figura gazteak, akidurak joak,
begiztatzen dituzte ohe ertzetik
eta ondo ibili den edo larregi ez edateko diotse,
«kontuz otoi» itzultzen den hizkuntza klandestinoan,
komuneko merkromina potearen zaratek bildurik
haurra etxean iragartzen duen gasolina zaporez.

Tenore laburrez begiren bat ixtea erdiesten dute
biharamunak bakea ez baina
ardura handiagorik ez ekartzea otoiztuz.

(Auzokideen telefono deiak ziztaturiko
anplifikadorearen terrorez jotzen du:
malko bat, tamal isila eta hasperen krudela).
Hurbildu diren arren beste egun bat joan dela
izkiriatzen du eguneko gerrako parteak.

Kandela indarge honek
ez ditu zure poemetako sakonuneak argiztatu gura,
edizio mugatuko hiruzpalau liburu,
ehungarren orrialdera ailegatu barik,
egunkari hasi berria, zuritasunaren inozentzia
aldean,
paperezko mukizapiak pilatzen zaizkit mesanotxean,
eta argazki desenfokatu hauek,
patrolak, uniforme berdeak eta itxaropenaren
alanbradak zientoka,
bizkor idatzitako matrikularen bat
baina zure arrastorik arean ez.

Zabor biltzaileen kamioiak leihoaz bestaldetik.
Sexua eta agitazioa kantu beraren irakurketak dira,
maitasunaren eta iraultzaren idazlanak biltzen ditu.
Kuarteletako laborategiek aspaldi izan zuten gure
berri
gure dantzak teknika berriekin desaktibaturik
euren abertzaletasun kotizazioaren
tertulia bihurtzen dituzte.

Begiak estalita itsu itsuan fusilatzen duen
iskiluaren justizia datorkigu
diesel usaina dakar errepresioak haztamuka,
ezpainak bilatzen dizkizudan eran
borrokaren kale kantoietan ikarati.

Ohe bazterrean pilaturik utzi ditut liburuak
eta flexoa amata eta bihotza isetu dut.
Gaur urduri heldu naiz etxera
giroan polizia sozialen kamuflajea
txarto dekoratu dutelako
eta goizean itsatsitako kartelak zoruan
hautsirik jaso ditudalako.
Jausi berri den egunkari faxista xerkatzen dut
atzamarrez ohepetik,
zure argazkia agertu zeneko ale hura gordetzen dut
oraindik,
orrialdeak beilegitu eta fotografiakoa
zu ez zarela jakin arren.

Erritualerako prestatu naiz
eta pot bat eman dizut bekokian eta
pijamako prakak erantzi eta komuneko papera
mesanotxean dagoela ziurtatu dut.
Pertsianako zirrikituetako argitik ez zatoz zu eta
iluntasunak guztiz irentsi arte beheratu dut,gero
imajinatu egin zaitut goizeko iruditik,

orrazkera berriak sama desiragarriago marrazten
dizu,
ezpainetako autobidean hegoaldera
polo grisetik ez dizut
sujetadorearen kolorea asmatzen ahal,
zuk zuria behar duzu ordea
ez duzu sekula... beno, oso gutxitan.

Eta gaur ez didazula so egin ohartu naiz
gure alfabeto sekretua mututu egin dela
eta eskuan amets dekadente baten arrastoen
gutun loakartua baino ez daukat.
Goizeko praka bakeroak ondo lotzen zitzaizkizula
eta kuleroak marratu eta
estaltzen saiatzen zinen lerrottoa
deskribatzen zizun eta nik inoiz
sentitu dut zure epela belarri ostean eta
oharkabean bailitzan bizkarra zulatzen zenidan
kamiseta zuriko bularrak itsatsiz.

Baina ez, gaur kanpaia nasai jotzeko ere,
sirena gehiegi entzuten da.

Dolu jaka jantzirik altxatu da artizarra gure
ortzemugan.
Kriseilu zaurituen saminezko mintzo lehorrak egiten
dio ihes,
esaldirik osatu ezinean.
Gaur bere leinuruak ez du ohiko argirik.
Ez, gaur torturaren argi urdinska baino ez dago
eta zu laztana armairuan gordetako
kontu ezkutuetan zatoz,
udagoien isilen sekretuak gatibatzen dituzu
zilar koloreko eraztunetan.

Eliza bateko organoak zabaltzen du eguna eta
sorozabalen martxak sarraila giltzaperatzen du
lur honen heriotzazko zerrendan.
Kaleak zure poemetarako tintazko kaputxekin bete
ditugu.
Handiegia da labankadaren iltzadura.
Territorio arantzatsu hau
ez zuten maitasunerako konkistatu

eta nire graffitiek zure izena bakarrik idatz
dezakete,
sprayetatik amonal dosirik eskaini ezinda.
Gaur egun sei letratan biltzen dugu heriotza zigorra.

Haizezko inprentan argitaratu dituzte gure galderak
Erantzun estupidoen bildumarako erreklamu
Egin dituzte balantzeak
Minigona bi praka estu urratuak kamiseta markatuak
Terrorismoak mainguturiko estatuko gizakume biktima
Alkoholik gabeko garagardo lata bat izotz artean
Makineria astunaren herdoila garbitzen dituzten paperak
Eta errukiaren kolonia grisetan urtzen dute
Estanterietan ruandako ume erdi
Eta mozanbikeko beste hirurekin promozioan emateko

Kamuflaje arrea jantzirik sartu zaigu negua etxean,
sueteko makinak azentu iraultzailez berotzen du
kafea,
gose greba deklaratu du irratiak
ganbaretako sagutxuentzat,
esan du halaber ideien merkatua
ordu erdi goizago itxi dutela
saltzaile batek medikuarengana joan behar ei du
begiko minez.

Hil honetarako gomendioak eman dizkigu ondoren:
scorpiusek funtzionario begi urdinen magnetismoa
izanen dute astelehenetan
hiru t'erdietatik zortziak artean,
telebista ofizialaren txute pare bat
kontsumitu beharko ditugu ekonomia altxatzeko
eta estatuak beroki bat oparituko omen die
auzokide terroristaren bat topatzen duten
estreinako ehun telefono deiei

Berogailuen kontrabandistek
dekretuz manipulatu dituzte termometroak,
mafiak goxokiak eta urte birako
hiltzaile profesional kontratuak egin ditu
ikastoletan,
kode etikoak faszikulutan emango dituzte koruan
egunkariek
egia tenplu handi bat dela eta eurek nahi bestetan
larrutan egiteko putetxea
irribarretsu inaugura dezagun.

Lau pistoladun eta bi miloi t'erdi puta
inkontrolaturentzako kalmantea.

Son ciento veinticinco pesetas. Gracias.

Berunezko xafletan urtu didate maitasuna
eta orain eite perfektuagoa du
merkaturatzeko errazagoa izango omen da
kamioilarien sindikatuak ere pozik daude
parlamentuak zelofanez eta urre koloreko paperetan
bildu dituzte
eta burtsen balore eskalak
orgasmo kolektiboan dabiltza

ona ei da
baina nire jakak ez du horrentzako poltsikorik
eta ttikiegia naiz
nire ttikitasunean kantitate horiek trafikatzeko

olio lohi unea agertu da Inperioaren Buletin
Ofizialean
egin dezagun irri gaur ahoa libre dukegu eta

Gaur eskuz konpondu beharko dugu.

Sasoi berrietan arantza bi iltzatu zitzaizkidan.
Batek, sumindura pizten du uneoro
Eta hor nabil
Morfinaz anestesiatzen eta gasolina txertoz erreduren zokogune bila.

Zure labanaren punta ez dut aurkitu oraindik.
Ez du sumindurarik pizten, ez
Zure izeñoa zizelatu zuen haragi bizitan garaipen seinale
Derrotaren kontzentrazio zelaian kondenaturik
Arantza bi iltzatu zitzaizkidan sasoi berrietan
Batak negarra eta irribarrea eta indarra eta eusten irakasten du
Eta bigarrenak psikiatriaren teoria ankerrenak frogatzen ditu.
Eta ez dago egurra emango dion gasolinarik.

it is the undoubtable thought, my friend
the thought that says «I'm right»
Bobby Sands

Gure kantuak terrorismoaren apologia zirelako
galarazi
eta klandestinitatera joan ziren musika tresnak,
baina lan gaitza da kontrabandoa laztana,
gure gerra himnoak behialako tinkotasunez aditzea
geroz eta nekosoagoa bihurtzen ari da.

Erre egiten gara ezein gaitajolek jasango ez lukeen
martxa militarrean, eta gose grebalarien
sabel hustuetako haizez elikatu eta aurrera jo
nerabezaroko
maitasun gutunen erantzunen zain bagengoz lez.
Zokogune ezkutuetan gorde dituzue notak
eta gure ahotsa
sirenen sinfoniaren ispilu beldurtua baino ez da.
Espetxeetan burdina bikoitzak jarri dituzte
hezurdurek ez dezaten ihes egin eta hemen gabiltza

nola edo hala botilak biltzen.Mapetan gudariren baten errautsak ezagutzen ez dituen mendi galduren bat xerkatzen dugu,
Eta ohituegi gaude etsaiaren tiro hotsetara
eTa lau harri eta gasolina litro pare bat
etA zure trikitien zain gaude eta eta armak behar ditugu.
Gure kotizazioa goitik dabil eta gure litro erdik bederatzi milimetrok eta bostehun kilok beste balio du.

«Osasun kontua da hau azken finean» esan zuten
errugabeen hezurdurak gas hilkorrez
puzten zituztenek,
«nekez gaixotuko da bila ez dabilena»
eta guri
gripearen aberrian jaiotzea egokitu zaigu,
mukizapia eta botika beti aldean.

Azken razzian harrapatu zituzten
azkenaurreko razzia izan zenean
oporretara joan zirenak.

Tabernetan
falta zen jendearen dekoratua hausten zuen batek.
Betiko lez, nasai ageri zen neskalagunarekin.

Eta oporrak legez kanpokoak direlako edo,
atxilotu dituzte haiek azken razzian.

Morroiak aldiz, nasai itxurekin jarraitu du,
eta, lagunarekiko kontsiderazioz edo,
ez dute atxilotu.

Zuri eskribidu behar deutsudala dinostee
nire bihotz minak munduari biluztu.
«Poesidxek etxok iraultzarik ingo»
«dabilenak etxok berbari'pe iten, da gitxiau,
eskribidu»
eta antzekoak dinosteez
eta egia da,
poema hau baino efektiboagoa da
artez kaskora joakon baldosa bat.

Baina oraindik poemak paperez eta
on line bakarrik dagoz
eta utilizar preferentemente antes de: 07 abril baino
ez dakarre kondoi kaxetan, eta gero argibideak.
Prosaz.

Bardin
arrazoia daukagu biok eta
surtara bota behar geunke poesia
garrak lehentxuago poetakaz isetuta.

Halan trankil prestatuko geunkez gure koktelak,
narrua joten joan orduko.

Adiskideen hitzek galdu dute herri hau,
lukurreriaren eta berekoikeriaren ele traidoreek,
oraindik orain satelite bidez unea ez dela eta
oker gabiltzala dioskuten diskurtso salduek
lurraren muineraino iltzatu zituzten kaleetako
arantzei
zelofana aldatu eta txapela ipini diete.
Baina ezer gutxi egin dute
puntaren arriskua zorrozteaz gain
mila mozorro eta maskara fabrikatu dituzte
euren buruak ispiluaren aurrean ezagutu ezinik
mihi pozoitsua daukate,
ipurdi arrotzen zaporeak emana.

Hitza zokorarazi digute,
hemen odol asko eta su gehiagoz
eraikitzen da askatasun bidezidorra
baztertu bada mintzoa
eta mila koloretako uniforme kiskalietan
gorde izar argitsuenentzat keinu konplize bat.
Oinazeak egin izan du lur honetan bidea

baina oinaze ezkutu lar dago hemen
derroten umiliaziora ohitu gara
eta apurrik apur goaz
makulu erdaldunen gainean makurturik.

Samin handiak datoz oraindik
zertarako hortaz banan-banan itxaron?
Profita gaitezen arma trafikoaz,
egin dezagun abordajea gasolineretan;
borroka galduetatik gatoz eta
traidoreen gezurrezko bakea baino ez dugu ezagutu.

Mutiko gazteak
dastatzera ere iritsi ez den lehen
maitasun galduaren begiekin antzematen du
mundua
eta galderak eta hausnarketak eta
erabakiak bilatzen ditu
«nik maite haunat, ordea»
atzera idatziko ez duen boligrafoa
orrian kolpatzen den antzera
azken tinta mantxak azaleratzeko.

Nahiko luke indartsua izan
porturik portu gizon zintzoen emazteekin larrua jo
eta pirata errebeldeen kanoiekin kale borrokara
lotu.

Munduak bera ikustea nahiko luke
arrakastadun exekutibo zoriontsua bailitzan
ezkermuturrekogaztebiolentoinkonprenituenbertsioan,
baina iraultzari ere ez dio itxaropen izpirik
sumatzen

bihotz erituen gorritasunetik landa.

Astiro eraikitzen ditugu hilobi untziak
zain ditugun lurralde birjinetara nabigatzeko.

Egunargia begiztatu eta zoragarri iritzi zenion
otsaileko goizeko eguzkia sortuz
zure zilarrezko zintzilikariaren distiran galdu
zitzaizkizun adats ausartak eta so urrina daukazu,
ortzemugaren dianan tinkaturik urtutako itsas
begiak.

Gure lurraldean kateaz josi dituzte
bolizko samarik ederrenak,
beren aurpegi kaputxatuen geometriak
traje ilunak jarri dizkio
atorretan marrazturiko lentzeriari.
Mikrofonoetako galarazpen arautua
airean dagoen gorpu ustela da.

Kontraesanen jertseak emendatzen ditugu
«jo egik atzera».
Helmuga basamortuaren erdiko trenbidea lez da,
panoramika bistako haitzuloan amaiera difuminatua,
multiplikazio infinituak egin ditzakegu
garenaren eta beharko genukeenaren,
zelan duin mantentzearen
eta eztabaida saio aberatsenak
gin-kas pare baten liluran.
Nik ez dakit giltza daukadan edo
bidezidorra estaltzeko sasi gehiago dakartzadan
baina mihi bako mosuak politically correct eta
praktikan inkorrektoak dira.

Bakardadea igo da nire autobusean gaur.
Andrakila herabe baten mozorroa jantzirik sartu da
eta, aulki gehienak libre bazituen ere,
ondoan jesarri zait lotsagabe.
Leihoko dardaretan
desindustrializazioaren kanposantuko fotogramak
emititu ditu itsasoko haizeak.
Polizi helikoptero bat.
Autokontrol bako kontrol militarrak.
Estatuak gure jolasen
plano zoragarriak dituela jakin dut,
vhsan mikrofilmatu dutela harresiko graffiti
kolorgea,
sei fotografia ere badituzte, bana
izenaren letra bakoitzeko.
Sorbaldatik indiskretoki agertu zitzaizun
sujetadore zintak arazoak ei dauzka zentsurarekin.
Zapata gorriak lapitz gorri batez pintatu dizkizute
zuribeltzaren gainean.
Torturaren foko beilegiak

zure adatsaren jeloskor daude.Praka grisetako
hanka gurutzatuak
ebagi behar omen dira.
Euriak taigabe xuxurlatzen digu arriskua
bunker honen metalezko paretetan
eta guk ezer ez bageneki legez jokatzen dugu.

Gauak betiko bahitu zuen kalean jaitsi da
bakardadea,
eta bakarrik utzi nau,
auzorik auzo zugandik urrunago naroan autobusean.

Ez ninan azalpenik emateko asmo izpirik ttiki,
besterik gabe ahalik eta garbien hil
behar hintzela baino ez nekinan,
eta jakintzan,
hi kontu honetan egokitu den
aktore estra baino ez haizela
gidoi exijentziegatik desagertzeko
garrantzi handiegia hartu badun ere,
ez hoa hire egintzen patuarengatik.
Hortik ez. Ez ezan hortik azalpenik xerka. Ez
zauden.

Kontua bakarrik dun destruktiboegia haizela
erotomaniak jotakoentzat,
ez dien arean utzi bizirik gorputza baino.
Hire antzeko gaztetxoek
ondo ulertzen ditizten pasiozko likore ttanttoak,
territorio jeansak eskuz deskubritzearen
arriskuzko arnasestuak, plazerraren atzamar
jostariak
banan-banan urkatu ditun

non eta malkoen makilajea ere onartzen ez duen
gorpu
bihurtu naizen,
konbinatu pozoituen eta hauts zuri artean hator
eta ele xingle batzuen ilusioa gas ganbarara
kondenatzen dun,
dantzan segitu behar dinagu,
mendekua tinta ikusezinez eskribitu delako beti
nola gure paradisuko trajedia argitsua
foko psikodelikoen gerizan.

Hau ez dun sekula amaitzen eta, ttiki.

AZKEN KOKTELAK

Eta batzuk mugetatik heldu dira,
eta esan dute atzerritarrik jadanik ez dagoela.
Eta orain zer gertatuko zaigu atzerritarrik gabe?
Jende hauek zelanbaiteko konponbidea ziren.
K.P. Kavafis

They Have Murdered Our Poets
(West Belfasteko denda bateko kartela)

Demagun
hau ez dela desolamenduaren zubian eskegitako
ziega bat
eta demagun baita ere
zu ez zarela ur geldoetan harrapaturik gelditu zen
untzi ilehoria
orduan pentsa genezake zinema hustu bat eta
egun euritsu bat
edo pentsa genezake zinema bete bat eta
egun euritsu bat
nire baitako irudiak fotograma solteetara
sinplifikatu
zirenetik zirimiri mengel hau baino ez dago
kapitaleko bide bustietan kokatzen zaitut
bota gorriekin plisti plasta
hor eteten zait pelikula ez the end ez betiko paris
egunero zine pantaila berberean giltzepetzen naiz
zure ulerkortasunaren begiradapean
beldurra ezin ostenduta zentsuraren sirenen zain
artega

higitzen duzu borrokalari modernoen orrazkera berria
eta ematen du bizitza eten eta zauri hilkor bat egin didazula
zure labanaren indiferentzia harroaren
biktimen alde egiten dut otoitz burdinen kontra
delituz erratzen denaren antzera sartu nintzen aretoan
eta hemen darrait zure kateen gatibu
xirula baten orkestra oso soinu banda ona da
denbora hasi zen garaitik fanzineetako
olerki musikatuak
derrotaren gidoia bakarrik ezagutzen dugunontzat

Haize bafadek lehertarazi dute zure erretratua;
whistlearen doinu puruak pertsianaren kontra
harrotzen dituzu eraztun dirdirakorren atzamarrez,
begira dagoz gau parkeetako homelessak
whisky usaina ere galdu duen whisky botilaren
ispilutik
eta irri egiten diezu
zoriontasuna hedatzeko zizelaturiko
ezpain haragitsuekin.
Antidotoa izan nahian harrizko dosi ttiki bat
eskaintzen duzu goizaldean,
hotza eta bere gatibu hordiak baino
ez dira kausitzen ahal
sitsaren erresumako bankuetan.
Egunargiaren modura aurpegi alaiz darraizu
bestaldera so,
behiala irri egiten zenienei
mesprezuaren biloak emanez,
maitasun abandonatuen fitxategi polizialerako.

Honelako goizaldeetan
desberdin jantzi ohi zait maitasuna:
jertse grisa daroa, eta ipurdia
bereziki nabarmentzen dioten jeansak.
Zirimiria taigabea da, ernalduz
umeltzen dira berokiak,
harrotasunez beterik gogortuz titiburuak
desioa aurpegiko ttanttoetan labantzen da
eta golkoan behera
protesta kamiseta batean galtzen dira
konplizitatez sujetadore beltz bat islatzen du urak
mihi bihurri bat
ezpain euritsuetatik erauntsia sikatzeko,
irribarre hezea pikardiaren olgeta marratuz.

Batzuetan ederra da amosala gurean.

Faroak piztuta dabiltza autoak astiro stopera parajetu eta
bluesaren enkoadrean sartuko ditugu
ene leihoko egurrak.
Kortina zurien artetik kostako bidea
kresal usainez dator,
kale bustiak eta zure argitan zipriztintzen dira
polizi patrullak.

Portuan maniobra gaiztoak izanen dituzte
bajurako untziek,
uda honetan yate handiegiak dagoz
eta badoa azken turista itsasertzeko
karretera lokaletatik
lohitu ez dugun paisaiaren baten bila.

Travellers eufemismoa asmatu zuten
izate oso baten lotsaria
errespetuzko mozorroz ezkutatzeko,
usteldu ziren garaiak berpizten dituzte
gitarra proletarioekin,
suburbioetako teknologiaren azpigarapenak
berun azalez jantzi ditu antzinako kate uherrak
zaharrenek ere oroitzerik ez duten askatasun bila.
Heroinaren itsasoetan aingura altxatzea nekeza da,
merkatu ibiltarietan inork miresten ez dizkieten
bitxien ontasunaz sinestarazi gura lukete
joan ziren sasoietako amoranteen liburuak
urtu egin dira,
esku zarten paisaia tropikalean
garrasi sentituak prefabrikatzen diren urteetan
mesprezua da sentimendu bizien errepresioa.

Arrosaren arantzek galdu zaituztete
hosto gorrien perfumetan
eta bidean jarraitzen duzue
sekula seinalerik ezarriko ez den autopistan.

Gitarra flamenko baterako kantua moldatuko nizuke
ijitoen berbakeraren erotismoz bildurik,
txalo beroz definitu gorputz mugimenduak,
eta osatuko nizkizuke begirada jokoen erruleta errusiarrak
edo labirinto estuan isilpeko doinuak uztartuko genituzke
ele bakoitzean hunkitzen duen hizkuntza klandestinoan.

Bular artetik isurian doan izerdi ttanttoa
folklore itzaltsuen hurbiltasunaz xukatzen,
eskumuturrean pausatzen dizkidazu atzamarrak xera ezkutuz
eta inozentziaren olgeta bailitzan dardaraz
bular harrotuei
esku jostarien galdeketei erantzuna jasotzen diezu
lege zaharren aterpe ezezagunetan.

Kantoi ilunetik garrasi urratuetan datoz
amodiozko nahigabe ijituak
gonbitoka irtendako bertsoekin.

Errondatik hamabost urtetan
negar hordiak dituzuen neskatxak,
harley batetik alkandoraren idunekoa oratu
eta aurpegia ukabilkadaka desitxuratzea
edo La Viejara bidean San Antongo zubitik jauzi
egitea
Bilboko penak eta lindanea merkatarien hilobian,
filosofia urbanoak droga berrietan amildu dira.
Zipaio bat iraultza zerga kobratzen ari zaio Rosanari
Las Cortesko bere izkinan.

Ezar ditzagun gure doinuen sintesirako mugarriak.
Ez utzi zakurren iretargipeko uluei
Zure auzoko aduana gurutzatzen
Zabalduko dugu zilarrezko bitxien museoa
Baldin sahats blondek jertsearen idunekoa
Marra mugagabez filmatzen balute
Tiobibo nakaratuetako sarrera ordainduko nizuke
Eta eskuetan ihes doakidan harea garauen bila
Zure aurpegiko basamortuko oasiren batean
errefuxiatu,
Emanen nizuke palmondo bakartiko azken datila
Hizkuntza honek ez baleuka irudimenaren zentsura
Minareteko dorrean giltzapeturik.

GROZNI

Ospitale hotz baten atarian utzi dut maitasuna.
Kirofanora bidean atera dute anbulantziatik
eta tiro hotsen arteko musikarekin ikusi dut
azkenez kale ertzetik.
Orain, abenidan behera,
frankotiratzaileen begi iltzatuak sumatzen ditut,
fusilen harriduraren atzetik, elurrak mosua pitzatu
die,
egunsentiaren hutsaltasunean
inportanteegi sentiarazten gaituzte,
leiho tarteetatik,
otoitz herabeak indiskrezioz isurtzen dira.

Tentsioak konnotazio gogorregiak ditu
lur honetako kristalezko arriskua definitzeko.
Isiltasuna da gure dramaren bsoa.
Bailara urrinetako kanoiek hondo lehorra osatzen
dute
eta zurrumurru musulmanek biltzen dute
erresistentziaren opari papera.

Ez dezala tiroak zuen itxkeriar egunsentia eten;
ez ezazue makurtze deklaraziorik sina sirena
hotsekin,
ez gutxietsi gure inteligentziaren bonbak.
Borroka, lantzean behin,
lau kamera eta txeke sekretuak baino gehiago izan
daiteke.
Jostunek firu meharrak atera zituzten
ahanzturaren mesanotxetik.
Ehundegiek ez zuten sekula halako ekoizpenik
ezagutu,
tar-tar entzuten genituen josteko makinak.
Zoriontsu egin gintuzten garaiak ziren.
Ez ginen aspertzen,
nahiz eta zoriontsuak ginela jakin ez.
Gosea ez baina,
hotzaren amaiera genekusan trenka haietan.
Eta, zergatik ez, gosebakoak izanik
zoriontsuak ginela amesten genuen.
Etorkizuneko zoriontasuna metatzen genuen
kaxoietan,
norbera lau bider janzteko lain
superprodukzioan ziharduten ehundegiek.

Eta hotza iritsi zenerako betiko amaitu zen artilea.

Bakardadea
izan liteke hilotz bidean datzan erromesa
edo izan liteke halaber New Yorkeko metro betean
horren era berezian enfokatutako gizon hori.

Agian labankada batek odolustuko balu
bagoiek aurrera joko zuketen
inori ustel kiratsa dagoela gomutatu arte.

Xirula ttiki batek jotzen du
stratford haraneko melodia,
errari, gorputzak edozein muino txokotan
batzen ziren sasoiez oroituz,
itzuliko ez garen lur garaiak eta han
gelditu ziren izakiak gogoan,
eta tristurak harrapatzen gaitu
ontziaz bestaldeko taberna zuloan.
Bizitza dohakabeen bisitak atxilotu gintuen gisara,
itzultzeko lain sos pilatzea
ametsa baino ez izatearen ikara,
eta ikara
gaur gauez ere ez zaudelako ene ohean.

Basotik trago heze bat hartzen dut
lei tarteak urtuz mihi dorpez.

Gero txaloak, harpa bat eta
gaitarik solemneena entzuten dira,
nola alkoholdun malenkonia tanta bat
lekeitioko portuan.

Zenbat laztan gaeliko zure musikan
bakarti abesten dizute gudariek.
Bihotzeko sekretuak irribarreen kamuflajeaz
mozorrotzen dituzu
begirada xingleetan,
lurrazal bilutsietako haizeetan zabiltza
harro, so ausartenak desafiatzen dituzten
bilo errebeldeekin.

Astiro, berba ezkutuak ipintzen dizkiot
egunik egun hazten dizudan ipuinari,
nola iratxo paganoak bidegurutze desolatuetan.
Bandidoen gerrillan
zure erresumarako kanpaina egin dut
arma bakar hauekin ibiltari,
mihi aske baten ttu idealista,
lau begirada, xera bi eta zuk utzitako
hamazazpigarren kantua.

Sekula helduko ez balitz legez
heriotza doinuetan maite zaitut.

Gainez egin beharrean irteten dira untziak
gure portuetatik,
bultzaka eta kontrabandoan eginiko tiketekin
igo da jendea,
baina gaurko ordulariek ez dute eresi askatzailerik
joko.
Auzoko mutilak oparitu zion gona urdina
etxeko errautsen artean utzi du neskak,
dena abandonatu dugu atzean,
hondamendiaren erresumako egoile
lur zatiak ere bonbaz josten dira gurean,
goizaldean etxeratzerakoan daramagun
whisky botilaren antzera hustu dira zelaiak
eta aurtengo uztak nekez kenduko digu gosea.
Munizioa erein genuen eta heriotza baino ez dugu
biltzen,
co. down co. kilkenny co. kerry co. sligo
lur berrietako albisteek betetzen digute sabela
eta joan direnentzako mezuak daramatzate coffin
ship-ek
idatziko diegula esaten diegu,

beren esku gaudela eta gugan inbertitzeko erreguan.
Duintasunak deus gutxi balio baitu elikatzeko.

Untzi horietan doa gure etorkizuna.
Hemen gure iragana ehorzteko lurraz ere desjabetu gaituzte.

SecurIty forces Regret Any
delay or inconvenience
blame the terrorists

Nire dinamitarik indartsuena zure men jarri nuen.
Falls-eko mikrofono inperialek angelu orotatik
grabatu zuten amorante urrin baten diskoa zinen.
rucaren patrolek salaketa telefonoa
daroate izkribaturik
beren hezurdura blindatuan,
mural errepublikarren arteko paisaiaren zatia dira,
euri mengela ere erreginarena dela esateko.

Itsasoa muga garaitezina zuregana
beti sumatu zintudan Belfasteko karriketan;
gaita bakarti baten notetan zeunden,
bestela zure ametsen irudia zekarten
arrabita militarretako neskatxa zinen.
Kaputxa errepublikarren azpiko irlak ere
konkistatu zenizkidan.
Baserriko currya gordetzen nizun badaezpada

eta martxa sektarioak garaitzen genbiltzan
baina ez zintudan aurkitu,
zu hemen zeunden betiko legez
eta ni, ezdeusaren aiduru
Kelly’s-en sartu nintzen pinta bat tennents edatera.

Lehengoan ageri zuan,
maisuek soilik dakiten era horretan.

Morroiak filmatu zian urkabe bat,
eta gero ikusleren baten aurpegi bat, tentsioak
irentsia,
begiak zabal-zabal nerbioek gorrituta
eta klaskada batean klok soinu lehor bat sartu zian
eta mutu tinkaturik lotu zitzaizkioan niniak.

Ez zuan anpulurik isuri,
zabalagotu eta gorriagotu baino ez zituan egin.

Sekuentzia ikaragarri gogorra duk,
zuzeneko emisioa baino askozago,
atxilotua gorpu bihurtzen sentitzen duk
hotzikara batean
baina kontua duk
errealismoa zeinen xingleki lortu duen tipoak,
begien eta soinu baten joko hutsez. Plano bitan.

Hik ere badakik poeta,
begi sarkorrak dituala esan ditek usu.
Egiak,
hitzak baino,
makilaje apur batez
antzezturiko sekuentzia txiki horiek dituk.

Begira hor daukak muga
utz itzak hemen sandaliak
atzerrian hotza baino ez duk kausituko
gorde hogei pound badaezpada ere
soldadu batzuek deskontuak ere egiten ditiztek
baina ez egiek inola begietara so egin
han bala bat bezain merke ordaintzen dituk
begiradak.

Posible bazaik bidal iezadak postal klandestinoren
bat
lur apatridetako gezurrak azter ditzagun:
justizia legeztatu dutela kantitate ttikietan
eta txakurrek giza lorategietatik abesten diotela
iretargiari
konta iezaguk non dagoen azken trenbide arrastoa
sinfoniak herdoildu direnentz eta
herdoilaren sinfoniak al dauden musika kaxetan.

Etsaien auzuneetan giroa hobea ei duk
eta izuak ez dik traidore kamuflajerik janzten

zintzoa bahaiz jaten eman eta zein uniformerekin fusilatu aukeratzen utziko ditek.

Hoa aduanatik bestaldera poltsa urdin horrekin. Han ere ez duk hemen ez dagoenik egonen eta.